

# KOSTU EGITURA

Proiektua ez litzateke posible izango kostu egitura aurretik egin gabe. Gainera, proiektua GKE izanda, dirua aurreratu behar izango dugu gure helburuak aurrera eramanez ahal izateko. Hori guztia kontuan hartuta, ondorengo kostu motak hartu behar ditugu kontuan:

- Zuzenak eta zeharkakoak
- Finkoak eta aldagarriak
- Ekonomikoak eta sozialak

Proiektua guztiz diruztatzen, 250.000-300.000€ inguru behar izango ditugu. Diru hori 3 kostu moten artean banandu behar izango dugu. Hona hemen azalpenak:

- **Kostu zuzenak:**

Gure kostu zuzenetan, hartz klinika irekitzeko behar ditugun baliabide guztiak hartuko ditugu kontuan. Kostu hauek, finkoak zein aldagarriak izan daitezke. Hauen arteko desberdintasuna hobeto ulertzeko, adibide bana jarriko ditugu: kostu finkoak, beti diru kantitate berdina dituzten diru kostuak dira, hala nola, langileen hilabetekoko soldata (900-1.100€/hilabetean). Kostu aldagarriak, berriz, denbora tarte zehatzetan, diru kantitate ezberdinak suposatzen dituzten kostuak dira, adibidez, ura eta argiaren aurrekontuak.



- **Zeharkako kostuak:**

Hartz klinika bat irekitzeko, proiektuari gehitu behar diren baliabideen kostuak dira. Izan ere, klinika irekitzeko, baliabide material, produktu eta publizitatearen zeharkako kostuak kontuan hartu behar ditugu. Beste modu batean esanda, tratamenduak eskaintzeko behar ez ditugun gainontzeko kostuak sartzen dira, hala nola: klinikaren alokairua, ordenagailuak, telefonoa, Wifi-a...



- **Kostu finkoak:**

Kostu finkoak, ekoizpena aldatuta ere, konstante mantentzen diren kostuak dira. Definizio hau gure proiektura eramanda, hartz klinikan kontuan hartu behar diren kostu finkoen artean, ondorengo hauek aurkitzen dira:

- Lokalaren errenta: 1.500€/hilabetean
- 100mb-ko Wifi konexioa: 20€/hilabetean
- Haririk gabeko sarea eta telefonoa: 60-90€/hilabetean
- Besaulkiak: 2.000-3.000€



- Konpresoreak: 600-900€
- Informatika material guztiak: 800-1.200€
- X-izpi makinak: 1300-1500€ eta mantentze-lana egiten duen enpresak 200€/hiruhileko
- Hondakin biologikoak batzen dituen enpresa: 50-80€/hilabetean
- Garbiketa enpresa 800-1.000€/hilabetean
- Klinikaren kostu administratiboak eramango dituen aholkularitza zerbitzua: 1.000-1.500€/hilero.

- **Kostu aldagarriak:**

Kostu aldakorrek, ekoizpenaren arabera aldatzen direnak dira. Hauek zuzen-proportzionalak dira, hau da, ekoizpenarekin batera handitzen dira. Gure klinikan kontuan hartu behar izango ditugun kostu aldagarri batzuk ondorengo hauek dira:

- Klinikari gastatzen den ura, argia eta gas naturala: 180-190€/hilero
- Langileen babes materialak (eskularruak, mozorroak, betaurrekoak, txanoak, arropa, kalotzak): 500-1.000€
- Paziente bakoitzarekin erabilera bakarra duen materiala (xurgatzaileak, edalontziak, kotoia...) 60-90€ eskaera bakoitzean.
- Desinfektatzeko toallak: 60€/hilero



- **Kostu sozialak**

Kostu sozialak gizartean du eragina. Horregatik, gure proiektua GKE izanda, eragingo dugun kostu soziala hurrengoak izango da:

Errekurtso urriko pertsoneri, tratu espezifiko bat emanez, lagunduko diegu haien aho eta hortzen higiena egokia izaten. Honek eragin handia izango du pazienteen bizi-kalitatean.

Horretaz gain, egingo ditugun ekintza guztiekin gure helburu nagusia betetzen badugu (ahoko gaixotasunei behar beste garrantzia ematea), herrialdeko gizartearen osasunean, aho-barrunbeko gaixotasunen tasa jaitsi egingo da.

